

Batasuneko Berrikuntza Adierazleen Panelaren –IUS 2011-arabera Euskal AE 15.aren mailan da 27-EBn

Euskal AE berrikuntza handidunen eta moderatua duten herrialdeen artean kokatzen da


Europako berrikuntza adierazleen panela: Euskal AEn Batasuneko Berrikuntza Adierazleen Panelaren –IUS 2011- arabera Euskal AEren balioa 0,46 da 2011an, Eustaten datuen arabera; horrela 27-EBn 15.aren mailan litzateke, batez bestekoaren (0,54) azpitik.

IUS 2011n, 27-EBko estatuak, puntuazioaren arabera, lau kategoriatan sailka daitezke: Aurrenekoan, **berrikuntza liderrak**: Suedia (0,75), Danimarka (0,72), Alemania (0,70) eta Finlandia (0,69). Europako benetako liderra (0,83) Suitza da, EBtik kanpo.

Bigarrenean, **berrikuntza handidunak** (0,62-0,50): Belgika, Erresuma Batua, Herbehereak, Austria, Luxenburgo, Irlanda, Frantzia, Eslovenia, Zipre eta Estonia.

Hirugarren, **berrikuntza apaldunak**: Italia, Portugal, Txekiar errepublika, Espainia, Hungaria, Grezia, Malta, Eslovakia, Polonia. 0,44-0,30 artean. Laugarren, **berrikuntza txikidunak**: Errumania, Lituania, Bulgaria, Letonia (0,26-0,23).

1. grafikoa. Batasuneko Berrikuntza Panela IUS 2011. Euskal AE eta 27-EB



Iturria: Eustat eta PRO INNO Europe: INNO-Metrics. Europar batzordea

Euskal AE (0,46), bigarren eta hirugarren taldeen artean legoke, handidunen eta apaldunen artean.

Giza baliabideak, Ikerkuntza-sistema eta Enpresa inbertsioak dira euskal berrikuntzaren hiru funtsezko dimentsioak

Batasuneko Berrikuntza Adierazleen Panela –IUS 2011- hiru bloke nagusitan egituratzen da, zortzi dimentsio, 25 adierazle. Estatuen ekonomien gaitasuna neurtzen du, berrikuntza-jarduerak garatzekoa.

1. taula. Batasuneko Berrikuntza Panela IUS 2011. Bloke eta dimentsioak. Indize konposatuak.

	27-EB	Euskal AE	Espainia
Berrikuntzako Adierazleen Panela (IUS 2011)	0,54	0,46	0,41
Bideratzaileak	0,56	0,53	0,48
Giza Baliabideen Adierazleak	0,56	0,61	0,44
Ikerketa sistema	0,53	0,54	0,54
Finantziazioa eta Laguntza	0,58	0,38	0,47
Enpresa Jarduerak	0,50	0,44	0,32
Enpresako Inbertsioak	0,44	0,50	0,25
Loturak eta Enpresa-Ekimena	0,49	0,44	0,25
Aktibo intelektualak	0,55	0,41	0,41
Outputs	0,56	0,42	0,43
Berritzaileak	0,51	0,40	0,33
Eraginak Ekonomian	0,59	0,42	0,47

Iturria: Eustat eta PRO INNO Europe: INNO-Metrics. Europar batzordea

Giza baliabideak, Ikerkuntza-sistema eta Enpresa inbertsioak dira Euskal AEko berrikuntzaren hiru funtsezko dimentsioak, europar batez bestekoarekiko. Gainerakoan, erkidegoaren puntuazioa Europar Batasunekoaren azpitik dago.

Euskal AEko berrikuntza: **Giza baliabideetan** pertsonen kualifikazioa, hezkuntza neurtzen da, berrikuntzarako datu giltzarri gisa. Euskal AEn hirugarren mailako hezkuntza duen 30-34 urte bitarteko biztanleak %43,7 dira; Europako batez bestekoa %33,6 da; badago alderik. Goi-mailako bigarren hezkuntza gainditu duten 20-24 urte bitarteko gazteak %79,1 dira erkidegoan eta %79,0 27-EBn; oso-oso antzekoak. Berriz, “Doktore graduatu berriak, 25-34 urte bitartekoak”: milako 1,14 Euskal AEn, milako 1,50 27-EBn.


Ikerkuntza Sistemaren irekidurak, bikaintasunak eta erakargarritasunak ematen dute zientzia-sarearen nazioarteko lehiakortasunaren neurria. Hemen nabarmentzen da milioi biztanleko nazioarteko koargitaratze zientifikoen kopurua: 498 Euskal AEn, 301 Europan. Herrialdeko doktore guztien artean EBtik kanpokoak direnen ehunekoetan: %18,8 Euskal AEn, %19,2 27-EB; antzekoak, beraz.

Enpresa-inbertsioan (I+G eta Berrikuntza, enpresek eginak), nabarmentzen da “BPGrekiko I+Gko gastu pribatua (%)”: %1,60 Euskal AEn eta %1,23 Europako batez bestekoan. Berriz, “Berrikuntza gastua, ez I+G” negozio-zifrarekiko ehunekoan, %0,64 da erkidegoan eta %0,71 27-EBn.

Gainerako dimentsioetan puntuazioa Europako batez bestekoaren azpitik dago, baina hortxe ere badira zenbait adierazle non Euskal AEk antzeko puntuazioak dituen, beti ere Europar Batasunarekiko:

- Barne berrikuntza duten ETEak
- Berrikuntzan lankide diren ETEak
- ETE berritzaileak, produktuan edo prozesuan
- EBko merkatal markak
- Enplegua ezagutza intentsiboko jardueretan
- Goi- eta maila ertaineko teknologia esportazioak
- Ezagutza maila altuko zerbitzu esportazioak

2. grafikoa.- Berrikuntzaren dimentsioak, Euskal A.En eta 27-EBn. Batasuneko berrikuntza adierazleen panela IUS 2011



Iturria: Eustat eta PRO INNO Europe: INNO-Metrics. Europar batzordea

Badira, oraindik ere, EBko batez bestekoaren azpitik dauden adierazleak.

Finantzaketa eta laguntza dimentsioan izandako balioak, bai sektore publikoak I+Gn egikaritutako gastuan BPGrekiko portzentajea, bai arrisku-kapitalaren eskuragarritasunean, Europako batez bestekoaren azpitik daude. “**Aktibo intelektualak**” dimentsioan, “PCT patenteen eskariak” eta “EBko diseinuak” adierazleak batez bestekoaren azpitik daude, baita ere. Gauza bera gertatzen da **Berritzaileetan** “ETE berritzaileak marketin edo antolaketan” ehunekoarekin eta “**Eragin ekonomikoetan**” ondokoen negozio-zifrarekin: “Merkatu edo enpresarentzat berriak diren produktuen salmentak eta “Atzerriko diru-sarrerak lizentzia eta patenteengatik”.

Ohar metodologikoa: IUS 2011 egituratzen da, IUS 2010 bezalaxe, 3 bloke nagusitan, 8 dimentsio, 25 adierazle bakun. Haietatik 6 Berrikuntza Inkestatik lortzen dira, zeina bi urtekoa baita europar kasuan. Europako azken inkesta CIS 2008 denez, 6 aldagai horien balioak berberak dira IUS 2011n eta IUS 2010. Honek adierazle konposatuaren edozein denborazko alderaketa mugatzen du, ez baitu bilakaera erreala haren osotasunean islatzen.

Innovation Union Scoreboard, IUS 2011

<http://www.proinno-europe.eu/inno-metrics/page/innovation-union-scoreboard-2011>

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Haritz Olaeta Goiriena

Tel.: +34-945-01 75 02 Faxa: +34-945-01 75 01

IUS berrikuntza panelari buruzko prentsa-ohar gehiago